

egunekoa

Iñaki Aldekoa

(Aralarreko kidea)

Konplexurik gabe

Alderdi popularrak bere *mirabeen* laguntzaz aurrera darama Batasunari Alderdien Legea delakoa ezarri eta hurrengo hauteskundeetan aurretik legez kanpo uzteko asmoa; bestalde, ETA erakunde politiko-militarrak bere «alderdien legea» ongi irizten dionari ezartzen jarraitzeko mehatxua egin du bere azken agirian, eta gertakari hauen aurrean bat-bateko gogoe-ta hauek egin daitezke:

PP-PSOE bikoteak bultzatu duen Alderdien Legea delakoa hauteskundeetan menderatzea lortzen ez duten indar independentista bat Euskal Herriko joko politikotik kanpo uzteko saio antijuridiko

eta antidemokratiko lotsagabe bat baino ez da. Eman nahi diren sasi-argudio guztiek ez dute azterketa juridiko kaskarrena ere gainditzen. Esan beharra dago adierazpen askatasunak bere baitan hartzen duela gertakari jakin baten aurrean isilik geratzeko eskubidea ere. Horri hutssegitea iritzi dakioke, edo ausardia eza, edo kalkulu politikoa, baina inoiz ere ez gertakari hori zilegitzea. Alderantzizkoa esatea akusatu bati isilik egoteko eskubidea ukatzea da eta «erruduntasun ustea», irizpide antijuridiko hori, ezartzea, eta hori zuzenbide demokratikoaren iturri hain gardena den erre-frautegi espainiarra oinarri hartuta, zeinek isiltzen denak baietz diola esaten duen, PP-PSOE bikoteko arduradun politikoez era lotsagabean erabiltzen duten argudioa, eta behin eta berriz entzuten duguna pentsamendu bakarraren foroetan.

Eta zalantzarik balego, ekimenaren ibilerari erreparatzea aski da jabetzeko lege hori «legezkoa» izan daitekeela eta Espainiako Parlamentuaren gehiengoak onartua (halakoak izan ziren bere garaian Reich-a babesteko lege naziak), baina horrek ez duela esan nahi bere edukia demokratikoa denik, eta ezta juridikoa ere legea aplikatzeko era bortitza. Ikusiko dugu bere egunean zer esaten duen Estraburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak, baina zoritxarrez orain eta hemen ez dugu horrelako magistraturarik, eta bitartean kirkenteria juridikoak bere bidea egingo du.

Eta kirkenteria hau kanpaina politikomediatico likits baten laguntzaz ari da gauzatzen, non jaun eta jabe diren asmoen epaiketak, adierazpenen trukaketak eta «herejeen» lintxamendu ideologikoa, guztia hedabideetan «ase arteko bonbardaketa» sistema goebeldar ezaguna ezarritik, horrela arnasa hartzeko aukera txikienik ere izan ez dezan pentsamendu bakarraren dogmarekin kritiko —edo ezberdin, beste-rik gabe— den edozein jarrerak.

Abertzaleen, eta kasu askotan euskal usaineko ororen, aurkako historia giro honek Inkisizioaren eskuetan zegoen Erdi Aroko Espainia integrista eta oskurantista hura gogorarazten du gehiago, Botere Judizialak eta hedabide libreek bermatutako ordenamendu demokratiko aurreratua

baino. Azpimarratzekoa da zenbait hedabideren eta profesionalen lan nazkagarria, beren ahalegin «jatorra» bideratzen dutelarik jendearen sen zitalenak xaxatzera, «jentilen harrikatzea» bultzatzeko, eledun honek edo besteak liburu sakratuaren kontra birao egin duela haizatzuz eta eledunen eta beren talde ideologikoen lintxamendu politikoa eta jazarpen juridikoa eskatuz, nahiz eta horretarako auzi karguak asmatu behar, esaldiak trukatu, euskal lexikoaren esanahia aldatu edo eta hitzaldiak «berregin».

Hereje ideologikoen jazarpenaren eta disidente politikoen ehiza-

ren aurrean —maccarthismoaren garai txarrena dakarte gogora—, ezinbestekoa da erantzun guztiz politikoa, demokratikoa eta baketsua ematea. Lekuz kanpo dago «mendira jotzeko» tentaldiari keinuz edo hitzez bide ematea, eta baztergarria da ilegalizazioaren aurkako erantzun gisa indarkeria politikoa erabiltzea edo horrekin mehatxu egitea, eta hau, batetik lehen esan dugunagatik, eta bestetik horixe delako PPren gobernu espainiarrak itxaroten eta irrikatzen duena, horrela zuri ahal izango duelako bere kirkenteria antidemokratiko eta antijuridikoa, lehentxeago edo gerorago goragoko auzitegiei aurre egin beharrean izango baita.

Testuinguru honetan, ETAre azken agiria ez da arbuigarria eta onartezina bakarrik bere irizpideak indarkeriaren bidez ezarri nahi dituelako, baita kredoa Pontzio Pilatotik hasten duelako ere, ahaztu egiten baitu, dirudienez, urteak daramatzala bere «alderdien lege» berezia Euskal Herriko alderdi espainiazaleen aurka gauzatzen, hilketa sektarioen eta jazarpen indarkeriaren bidez. Horregatik, ETAk ez du inolako aurtortate moral eta demokratikorik gure herrian norik duen zilegitasuna erabakitzeke, eta gutxiago oraindik Alderdien Lege horren aurrean indar politikoa abertzaleek zein jarrera hartu behar duten esateko.

Berriz ere jokaleku eza-gun baten aurrean gaude: bi muturrak bazterretatik indartsu presioa egiten euskal gizartearen gehiengoaren aurka. Batetik, Estatu espainiarraren legezko boterea, Euskal Herriari lege antidemokratiko eta antijuridiko bat ezarri nahian, «atxikipen itsua» beste biderik onartzen ez duena (abstentzioa «kirkenteria» da), eta, bestetik, ETAre kontrabotere faktikoa, «bere legea» inposatzen jarraitu nahi duena, eta, besteak bezala, bere esanei lotzea irteera bakartzat jotzen duena: («lege horri onespene isil edo abstentzionista ematen dietenena ere bada ardura eta erantzukizuna gatazkaren larriagotzean»).

BORROKA ARMATUA

Ezerk ez dio mesede handiagorik egiten estatu espainiarraren estrategiari ETAK darabilen jardun armatu sektarioak baino

Euskal Herriko jokaleku demokratikoa estutu egiten duten bi jarrera antagoniko baina guztiz osagarri hauen aurrean gelditzen zaigun bide bakarra, alde bietatik datozen bultzadei eusten saiatzea da, eta elkarrizketa eta demokrazia guneak zabaltea gure gizarteko esparru zibil eta politikoa guztietan. Honek orain eta hemen zera esan nahi du: batetik, ETAre azken agiria errefusatzeko, Lege horrekiko euskal alderdien jarrera baldintzatzea bilatzen duela, eta, bestetik, PP-PSOE bikotearen ekimenari aurre egitea maila guztietan, kalean, instituzioetan, hedabideetan. Konfrontazio demokratikoaren bidez, argudioak, burua eta adorea erabiliz, batetik ezetz esateko ETAk bere «alderdien legea» ezartzen jarraitzeko duen asmoari, eta bestetik ezetz esateko PP-PSOEn ekimenari, euskal panorama politikotik indar independentista inportanteenatariko bat ezabatzeko duelako.

Jarrera hau bi muturren su gurutzatuaren erdian geratuko da; hau saihestezina da gauden hiru aldeko jokalekuan, zeinetan —gauza bitxia— PP eta ETA muturrak bat datoz esatean berena dela bide bakarra eta ezin dela egon erdibideko beste jarrerarik.

PPk bere bonbardaketa mediaticoaren bidez esango du jarrera horri eustea Batasunaren abokatu lana egitea dela eta, azken batean, ETAre haizea ematea. ETAk, bestalde, bere agiri eta kontsigna politikoen bidez esango du jarrera hori ezkontezina dela Euskal Herriaren subiranotasunaren defentsarekin, eta estatuaren zapalkuntza estrategiaren jokoan erortzea, azken batean.

Dramatizatu gabe, baina batere konplexurik gabe, nagusia ukatzen diegu bi argudioei. Batasuna legez kanpo uzteko ekimenari ezetz esatea demokraziaren aldeko ekintza da; ez dago ETAre haizea emateko modu hoberik askatasun demokratikoak murriztea eta aukera independentistak legez kanpo uztea baino.

ETAre egungo estrategia armatuari ezetz esatea eta helburu politikoa lortzeko indarkeriari uko egitea, Lizarrako hitzarmenean esaten zen bezala, ezinbesteko

da Euskal Herriaren subiranotasunaren aldeko mugimendu sendo bat abian jartzeko, eta une honetan ezerk ez dio mesede handiagorik egiten estatu espainiarraren strategiari ETAk darabilen jardun armatu sektarioak baino.

Horregatik, inori lezioak eman nahi gabe,

baina inoren aurreko konplexu txikienik gabe, esan daiteke gizartearen gehiengoak hilaren 26an PP-PSOE bikotearen ekimenari ezetz botatzea eskatzen duela, eta gaur eta egunero errepika diezaiozula ETAre geldi dadila eta utz diezaiozula herri honi burujabetzarantz jotzen bide demokratiko eta baketsuak ibiliz.

zutabea

Juan Kruz Lakasta



Itsasoari so

Urtero bezala, kanpora bidaiatu ondok opor egun batzuk gorde ditut deskonpresiorako. Udan Iruñean egun batzuk oporretan igarotzea gustatzen zait. Gustatzen zait periodikoak lasai irakurtzea, lagunekin bermuta hartzea, igerilekura joatea, kostaldera txangoa egitea, urte osoz atzeratu dituzun mandatuak lasai egitea eta lanera itzultzeko emeki-emeki prestatzea. Edo, bederen, hori uste nuen: eguraldi onarekin gustatzen zait hori guztia egitea, egunotako giro nahasi, zakarrarekin luze egin baitzaizkit oporretako azken egunak.

Dena dela, egin beharreko guztiak egin ditut. Zira jantzita periodikoak erostera eta bermuta hartzera joan naiz. Kirol arroparekin igerilekura joan naiz, gauden pilotalekuan palaz —oso gaizki— jokatuz berotzeko. Eta, jakina, txangoa egin dut kostaldera.

Zumaia aldera joan ginen, aspaldiko partez. Egundua izan genuen, uda honetan pairatu ditugun egunak aintzat hartuz. Ipar-mendebaldeko haize zakar samarra, hodeiak eta ostarteak lehian, eta, gehien-gehienetan, jakina, lainoak garai. Halere, hondartza mukuru beteta topatu genuen. Marea goian zen, toki gutxi zegoen, eta iruindarron berezko joera hala eta guztiz ere bainujantzia jarri eta hareara jaitea bada ere, azkenean espigoira joan ginen, paseoan.

Gozatu genuen, gozatu genuenez. Barrualdekook itsasoak zorutzen gaitu. Halako batean, espigoiren ertzean eseri, eta itsasoari begira geratu ginen. Berde ilun ageri zen, oso ilun, gris eta urdin ukitu batekin, apartsu, itxi, hermetiko. Hari begira aurtengo oporretan ezagutu Lanzaroteko ur urdin-berde argiak, gardenak etorri zitzaizkidan gogora. Eta euskal herritarrok gure itsasoa bezalakoak garela otu zitzaidan. Jende ederra, baina berde iluna, oso iluna, gris eta urdin ukituekin, apartsua, itxi, hermetikoa.